

Lan Merkatua

2016. urteko urrian erregistratutako langabezia: Δ Hiletik hilerakoa: % -2,3; Δ Urtetik urterakoa: % -9,8

2016. urteko abuztuan Gizarte Segurantzza: Δ Hiletik hilerakoa: % +1,2%; Δ Urtetik urterakoa: % +2,2

Enpleguaren susperraldiak jarraitzen du: egungo langabezia maila 2010eko amaieran lortzen zenaren parekoa da, eta afiliazio maila 2011ko hasieran lortzen zenaren parekoa. Kontratazio mugagabeak, krisia hasi zenetik maila altuena lortu du.

Erregistratutako langabeziak beherazko bilakaera erakusten jarraitzen du eta urrian, gainera, zertxobait indartu da joera hau. Horrela, joan den urtean lortutako maila baino **%-9,8** beherago kokatzen da. Hau da, **38.318 langabetu** daude, joan den urtean baino **-4.160 pertsona langabetu** gutxiago. **2009ra arte egin behar dugu atzera urrirako langabetu kopuru txikiagoa aurkitzeko.** Hare gehiago, serieari urtaro eraginak kentzen badizkiogu, egungo langabezia 2010eko hazken hiruhilekoan lortzen zen mailaren parekoa da.


Sektoreka, erregistratutako langabezia joan den urteko maila baino **%-13,6** beherago kokatzen da **industrian** (-907 pertsona), **%-15,2** beherago **eraikuntzan** (-482 pertsona) eta **%-10,2** beherago **zerbitzuen sektorean** (-2.833 pertsona). Aldiz, **nekazaritza-sektorean % +0,1** txikia egin du gora (pertsona bat) eta **% +1,5 aurretik enplegurik ez zutenen artean** (+61 pertsona), urte-urteko lehen tasa positiboa sei hilabetez jarraian tasa negatiboak erregistratu ostean. **2008ra arte egin behar dugu atzera urrirako egungoa baino baxuago den langabezia maila aurkitzeko bai industrian, baita eraikuntza sektorean ere. 2010era arte zerbitzu sektoreen kasuan.**

Kontratazioak, urrira arte % +5,6ko hazkundera metatu du aurreko urtearekiko (+11.992 kontratu), 2006az geroztik aldi honetarako lortzen den mailarik altuena. **% +6,7** egin du gora **zerbitzu sektorean** (+11.738 kontratu), **% +4,2 nekazaritza-sektorean** (+68 kontratu) eta **% +1,0 industria sektorean** (+301 kontratu). **Eraikuntza sektorean, aldiz, % -1,8** murriztu da (-115 kontratu). Kontratu motaren arabera, **aldi batekoak % +5,4** igo dira eta **mugagabeak % +9,1**, hau da, aurreko urtean baino **+1.499 kontratu mugagabe** gehiago sinatu dira. 2008ra arte egin behar dugu atzera epe honetarako kontratu mugagabeen kopuru handiagoa aurkitzeko (% +7,6 gehiago ziren orduan).


Gizarte Segurantzarekiko afiliazioa, bestalde, **307.289 afiliatu** lortu ditu **urrian**, hau da, joan den urtearekiko **% +2,2ko** hazkundera (+6.521 afiliatu) eta urrirako 2010az geroztik lortu den mailarik altuena (+807 afiliatu gehiago orduan). **Erregimen orokorreko afiliazioak % +2,8** egin du gora (+6.121 afiliatu) baina **autonomoen afiliazioa % -0,3** jaitsi da (-229 afiliatu). **Besteren konturako afiliazioari** dagokionez, **% +3,1** egin du gora **lehen-sektorean** (+62 afiliatu), **% +1,2 industrian** (+629 afiliatu), **% +4,2 eraikuntzan** (+346 afiliatu) eta **% +3,2 zerbitzu sektorean** (+5.147 afiliatu).

Enplegua erregulatze espedientei dagokionez, **urtarrila eta urrian artean 123** zenbatu dira guztira, **120 koijunturalak**. Azken horietan jartzen baldin badugu arreta, joan den urteko aldi berean baino **-107 gutxiago** dira (% -47,1), eta kaltetutako kopuruak **% -40,2an** egin du behera. **% -45,8** gutxiago dira **etadura espedienteen** eraginpean daudenak, **% -42,4** gutxiago **murrizketa-espedienteen** eraginpean daudenak eta **% -17,1** gutxiago **deuseztatze-espedienteen** eraginpean daudenak.

Gipuzkoan erregistratutako langabezia langabetuak milaka



Landunen bilakaera 2008 oinarria = 100



Gizarte Segurantzako afiliazioa Urtetik urterako tasa

